



Porque merecemos un gobierno valiente. Prest gaude.

**Geroa Bai-ren
hauteskunde-programa**

2023tik 2027ra bitarteko urteak

Aurkibidea

1. Zer da dokumentu hau?.....	3
2. Zer aurkitu dezakegu dokumentu honetan?	4
3. Irakurketa Errazera egokitzapena	5
4. Geroa Bai koalizio bat da	6
5. Geroa Bai-k nor aurkeztuko du hauteskundeetara persona hautagai bezala?	7
6. Zer dio Geroa Bai-k?	8
7. Zer egingo dugu Geroa Bai-en?	12

1. Zer da dokumentu hau?

Dokumentu hau Irakurketa Errazean idatzitako Geroa Bairen hauteskunde-programaren **laburpen** bat da.

Geroa Bai koalizio bat da.

Horrek esan nahi du alderdi politiko batzuen batasuna dela.

Alderdiak honako hauek dira:

- Geroa Sozialberdeak
- EAJ
- Atarrabia Taldea

Hauteskunde-programa bat

alderdi politiko edo koalizio batek egiten dituen proposamenak azaltzen dituen dokumentua da.

Hau da, herrialde edo komunitate baten egoera hobetzeko zer proposatzen duten azaltzen da.

Kasu honetan, Geroa Bai-k Nafarroa 2023tik 2027ra hobetzeko bere proposamenak azaltzen ditu.

Hauteskunde-programa honek

Porque merecemos un gobierno valiente.

Prest Gaude du izena.

Gainera, dokumentu hau
Irakurketa Errazean idatzita dago.
Horrek esan nahi du
testua jarraibide batzuen arabera idatzita dagoela
eta jarraibide horiei esker
testua pertsona guztientzat ulertzeko errazagoa dela.



Hau Irakurketa Errazaren Europako logoa da.

2. Zer aurkitu dezakegu dokumentu honetan?

- Dokumentu honetan
atal guztiak aurkitzen lagunduko dizun
aurkibide bat dago.
- Dokumentu honetan glosak aurkituko dituzu.

Glosak honelako koadroak dira:

Iraunkorra*:

Denbora luzez mantendu daitekeela,
baliabideak errespetatzen dituelako
eta ingurumenari
kalterik egiten ez diolako.

Glosak hitz zailen ondoan agertzen dira
eta esanahia azaltzeko balio dute.

- Dokumentu honetan Nafarroa hobetzeko
Geroa Bair-ren proposamen garrantzitsuenak
aurkituko dituzu.

3. Irakurketa Errazera egokitzapena

Hauteskunde-programak
ulertzen zailak diren dokumentuak dira.

Horregatik Geroa Bai alderdiak
Irakurketa Errazera egokitzea
garrantzitsua dela pentsatu du.
Horrela, pertsona guztiek ulertuko dute.

Gogoratu dokumentu hau
hauteskunde-programaren laburpena dela.
Irakurketa Erazarrik gabeko hauteskunde-programa
hemen kontsulta dezakezu:

<https://geroabai.eus/eu/conocenos/transparencia>

Egokitzapen hau
Nafarroako Irisgarritasun Kognitiboaren Bulegoko
profesionalen taldeak egin du.
Bulegoak OACNA ere du izena.

Gainera, ANFAS-eko balidatzaileen taldeak
programa balioztatu du.

Balioztatzea ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonak
testu bat ulertzen den ala ez esatea da.

4. Geroa Bai koalizio bat da

Geroa Bai Nafarroako hainbat alderdi politikok osatutako koalizioa da.

Lehen esan dugun bezala alderdi politiko horiek hauek dira:

- Geroa Sozialberdeak
- EAJ
- Atarrabia Taldea

Geroa Bai-ren irudia hau da:



Irudi honetan koalizioaren izena eta zuhaitz baten irudia ikus ditzakezu.

5. Geroa Bai-k nor aurkeztuko du hauteskundeetara pertsona hautagai bezala?

Egun horretan pertsona hautagai ezberdinak aukeratzeko bozkatu egin behar da.

Pertsona hautagaiak kargu baterako proposatzen diren pertsonak dira.



Argazkian agertzen den pertsona **Uxue Barkos** da eta Geroa Bai-ko lehendakaria da eta 2015 eta 2019 urteen artean Nafarroako Lehendakaria izan zen.

Nafarroako Parlamenturako hautagaia da Nafarroako Gobernuko lehendakari izateko.

Hauteskunde hauetan udaletarako hautagaiei ere eman ahal izango diezu botoa.

6. Zer dio Geroa Bai-k?

Puntu honetan irakurriko duzuna
Geroa Baik idatzitako testu bat da.
Geroa Baik honakoa dio:

Geroa Bai sortu genuenetik
proposamen zehatzak egin ditugu
Nafarroan aldaketa garrantzitsuak egiteko.

Nafarroako herritarren bizi-kalitatea hobetu nahi dugu
eta horretarako plan bat daukagu.
Lan asko egiten dugu eta ondo antolatzen gara.

Gure lanari esker
hainbat alderdi politiko aurrerakoiok
elkarren artean akordioetara iristea
eta Nafarroan denboran zehar iraungo duten
aldaketa garrantzitsuak egitea lortu dugu.

Alderdi politiko aurrerakoiak*:
Gizartea hobetzea helburu duten
ideia politiko eta sozialak

Akordio horiekin Nafarroak berdintasuna lortu zuen
eta aniztasuna duen autonomia erkidegoa dela
onartu zen.

Geroa Bai-ri esker
herritarren ongizaterako,
hau da, pertsonak ondo senti daitezen,
oso garrantzitsuak diren
lege batzuk aldatu ziren.

Geroa Bai-en

Nafarroako **Autogobernuan** sinesten dugu,
hau da, Nafarroak autonomia izan behar du
bere burua gobernatzeko.

2015eko hauteskundeetan

Uxue Barkos, Geroa Bairen hautagaia,
Nafarroako Gobernuko presidente izateko
hautatua izan zen.

Uxuek Espainiako Gobernuak
Nafarroako Gobernuari egin zizkion
3 **transferentzietatik*** 2 sustatu zituen.
Gure ustez PSN-k,
hau da, Nafarroako Alderdi Sozialistak
eta une honetan gobernuan dagoenak,
ez du ezer egin transferentzia gehiago lortzeko.

Uxue Barkosekin, Geroa Bai-tik
Nafarroa gehiago garatzea eta aurreratzea
eta anitzagoa eta solidarioagoa izatea
lortu genuen.

Solidarioak esan nahi du
pertsona edo pertsona-talde batek
bidezkoa iruditzen zaion ideia bat babesten duela.

Politika fiskalarekin,

hau da, Ogasunean zergen gainean dauden legeekin,
enplegua eta aberastasuna sortu genituen
eta desberdintasun gutxiago egotea lortu genuen.

Nafarroako aurrekontuetan ere
egonkortasuna lortu genuen.

Nafarroako aurrekontuak mantentzea ere
lortu genuen.

Transferentzia*:

Estatuak funtzio batzuk dituenen
eta hauek autonomia-erkidegoari
pasatzen dizkionean.

Kasu honetan, Espainiako Gobernuak
2 transferentzia pasatu zizkion
Nafarroako Gobernuari.

Esate baterako,
trafiko-lanak egiteko funtzioa
estatuarena izatetik
komunitate batena izatera pasa daiteke.

Ongizate-estatu batean,
hau da, zerbitzu publikoak onak direla
bermatuko duen gobernu batean
aurrera egin nahi dugu,.
Adibidez, Osasuna, Hezkuntza, Etxebizitza,
Gizarte Politikak eta Kultura.

Geroa Bai-n Nafarroan
gizarte bateratua izatea nahi dugu,
desberdintasun sozial gutxi dituen
eta pertsona guztiek beren bizi-proiektua izan dezaketena.
Hori guztia lortzeko
oso garrantzitsua da garapen ekonomiko ona egotea.

Horregatik 2015. urtean

Errenta Bermatua,

hau da, baliabide ekonomiko gutxien dituztenentzako
laguntza ekonomikoa abian jarri genuen.

Horregatik orain Nafarroa

desberdintasun ekonomiko eta sozial gutxien dituen

eta pobrezia gutxien duen

Espainiako autonomia erkidegoa da.

Era berean **Emanzipa programa,**

hau da, gazteak independizatu ahal izateko dirulaguntza,

abian jarri genuen

eta ingurumena zaintzeko

Nafarroa Green Trantsizio Ekologikorako Estrategia proiektua

martxan jarri genuen.

Klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzko

Foru Legeari esker

Nafarroa gainerako autonomia erkidegoentzat

klima-aldaketa geldiarazteko gaien eredu da.

Geroa Bain uste dugu premiazkoa dela

Osasun sisteman aldaketak egitea,

batez ere Lehen Mailako Arretan

eta itxaron zerrendetan.

Lehen Mailako Arreta

herrietako eta auzoetako osasun-zentroetan ematen da.

Ez dugu ulertzen zergatik PSN-k ez duen

gu gobernuan egon ginenean egin genuen

Lehen Mailako Arretarako Plan Estrategikoa martxan jarri.

Badirudi PSN-ri gehiago axola zaiola

prentsan ateratzea

benetakoak eta erabilgarriak diren aldaketak egitea baino.

Hau ezin dugu onartu.

Hezkuntzan eta pertsonen zaintzaren gaietan ere

aldaketak egitea garrantzitsua dela uste dugu.

Horrek mendeko pertsoneri, haien familiei

eta sektore horretan lan egiten duten

pertsoneri eragiten die.

Pertsona horien bizitza hobetzeko

zainketetan dirua inbertitu behar da.

7. Zer egingo dugu Geroa Bai-en?

Zein proposamen ditugu ingurumenaren gaian?

Trantsizio energetikoa energia fosila, hau da, kutsatzen duen energia, energia berriztagarriagatik aldatzea da.

Geroa Bai-en uste dugu neurriak hartzea oso garrantzitsua dela klima-aldaketa geldiarazteko eta ingurumena, ekonomia eta gizartea **iraunkorrak*** izateko.

Iraunkorra*:

Denbora luzez mantendu daitekeela, baliabideak errespetatzen dituelako eta ingurumenari kalterik egiten ez diolako.

Horretarako, Nafarroa Green Trantsizio Ekologikoaren Estrategiarekin jarraitu nahi dugu eta honako gai hauetan neurriak hartuko ditugu:

- Klima-aldaketa eta trantsizio energetikoa.
- Garapen ekonomiko eta sozialak garrantzi berdina izatea.
- **Mugikortasun iraunkorra**, hau da, beste lekuetara mugitzean gutxiago kutsatzea.
- **Fiskalitate berdea edo ingurumenekoa**, hau da, herritar bakoitzak jartzen duen dirua ingurumena kontserbatu eta babestuko duten helburuak lortzeko erabiltzea.

- **Ekonomia zirkularra.**
Hau produktuak eta zerbitzuak sortzen dituen sistema ekonomiko eta sozial bat da baina ur, energia eta naturako materia gutxiago kontsumitzen ditu.
- Elikadura osasuntsua eta iraunkorra.
- **Energia berriztagarriak,**
hau da, naturatik lortzen den energia, agortu ezin dena eta berotegi-efektuko gasik sortzen ez duena. Adibidez, eguzkiaren, haizearen edo uraren energia.
- **Subiranotasun energetikoa,**
hau da, Nafarroak bere energia propioari buruz erabaki ahal izatea.
- **Biodibertsitatea.**
Hau leku berean bizi diren landare eta animalia espezieak dira.
- Uraren kudeaketa.

Zein proposamen ditugu **ekonomiaren garapenaren gaian?**

Geroa Bai-en ekonomia produktiboa, iraunkorra, digitala eta zirkularra izatea nahi dugu.

Horretarako Nafarroako Gobernuak

1.000 milioi euro

industriarako, merkataritzarako,

turismorako eta enpresa txiki eta ertainetarako

Eraldaketa Ekologiko eta Digitaleko Plan batean

inbertitzea nahi dugu.

Plan horrek zenbait alderdi hartuko ditu kontuan,

adibidez, jarduera ekonomiko estrategikoak,

gizarte-ekonomia, eraldaketa digitala

eta beste gauza batzuk.

Zer proposamen ditugu **enpleguaren gaian?**

Honetarako lan egingo dugu:

- Desberdintasun sozial eta ekonomiko gutxiago egoteko.
- Langileek enpresaren erabakietan parte hartzeko.
- Lan-ordutegiak egokiak izateko eta pertsonak beren lan-denbora, denbora pertsonala eta zaintza-denbora antolatzen laguntzeko.
- Enplegua lortzeko zailtasun gehien dituzten kolektiboek aukera gehiago izan ditzaten enplegu-politika aktibo batzuk egoteko.

Pertsona horiek honako hauek dira:

- Emakumeak.
 - Gazteak.
 - 45 urtetik gorakoak.
 - Langabezian denbora luzea daramatenak.
 - Migratzaileak.
 - Desgaitasuna duten pertsonak
 - Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak.
-
- Lan-inguruneak seguruak eta osasuntsuak izateko.

 - Lanean laneko istripuak eta gaixotasunak saihesteko.

Zein proposamen ditugu

tokiko munduaren eta lurralde-orekaren gaiekin?

Atal honetan **tokiko munduaz** hitz egingo dugu eta horrek zerikusia du landa-munduarekin, hau da, herriekin.

Era berean, komunitateko zonaldeen artean desberdintasunik ez egotearen garrantziaz hitz egingo dugu.

Zer egingo dugu?

- Toki Administrazioaren erreforma garatzea.

- Despopulazioaren Aurka Borrokatzeko Foru Legea sortzea.

- Gobernantza partekatua indartzea, hau da, boterea pertsona gutxi batzuen esku bakarrik **ez** egotea. Gobernantza partekatuak erabaki batzuk hartzeko baimena duten pertsonak errespetatu behar ditu.
- Tren-sare bat egitea produktuak errepidetik garraiatu behar izan ez daitezzen.
- Pertsonak herri eta hiri barruan garraiatzeko Nafarroako Garraio Plan Integrala garatzea.
- Errepideen Plana garatzea.

Zein proposamen ditugu **lehen sektorearen gaian**?

Lehen sektorea naturako lehengaiak lortzeko jarduerak dira, adibidez, **nekazaritza***, **abeltzaintza*** edo arrantza.

Gai honetan, honako hau egingo dugu:

- Merkaturatzeko Bide Laburrei buruzko Foru Legea garatzea.
- Nekazaritzak balio handiagoa izan dezan lan egitea.
- Bestelako Nekazaritza Politika Bateratua egitea nekazaritzan aritzen diren familiak beren lanetik bizi daitezkeela bermatzeko.

Nekazaritza*:

Frutak eta barazkiak lortzeko lurra lantzea da.

Abeltzaintza*:

Elikagaiak lortzeko, adibidez, haragia, esnea eta arrautzak lortzeko, animaliak haztegiatan haztea da.

- Animalien Osasunari buruzko Foru Legea garatzen jarraitzea.
- Abeltzaintza Estentsiboaren Plan Estrategikoa bultzatzea.
- Baso Baliabideen Zentroa eraikitzea.

Zein proposamen ditugu

autogobernuaren eta proposamen politikoaren gaitan?

Geroa Bai-ren lanari esker

Espainiak Nafarroari

hainbat gairi buruzko erabakiak hartzeko

agintea eman zion,

adibidez, trafikoari edo bide-segurtasunari buruzko gaitan.

Baina uste dugu

oraindik lan handia egin behar dugula

Nafarroak gai gehiagori buruzko erabakiak hartzeko

boterea izan dezan.

Geroa Bai-en uste dugu

Nafarroako autogobernua oso garrantzitsua dela.

Autogobernua autonomia duten

administrazioen sistema da.

Gai honetan ezin izan dugu aurrera egin

PSNk ez gaituelako babestu.

Uste dugu akordioak lortzea

eta herritarrek dugun ordenamendu juridikoa

aldatzearen alde egitea beharrezkoa dela.

Ordenamendu juridikoa Nafarroan dauden lege guztiak dira.

Zer proposamen ditugu

zerga eta finantza politikaren gaitan?

Geroa Bai-en autogobernu ekonomikoa eta finantzarioa indartsuagoa egingo dugu.

Horretarako, honako hau egingo dugu:

- Nafarroaren eta Espainiaren arteko Hitzarmen Ekonomikoa eguneratzea.
- Nafarroako Foru Ogasuna Europar Batasuneko Ekonomia eta Finantza Gaietarako Kontseiluan modu independentean sartzeko eskatzea, hau da, Espainiaren menpe egon gabe.
- Jarduera ekonomikoan, berrikuntzan, kalitatezko enpleguan eta aberastasunak hobeto banatzen lagunduko duten zerga-normak egitea.
- Dirua arduraz erabiltzea, gastuak kontrolatzea eta dirua nora doan azaltzea.
- Pertsona guztienak diren baliabideak ongi erabiliko dituen politika arduratsu eta gardena egitea.
- Iruzur fiskalaren eta ezkutuko ekonomiaren aurka borrokatzea.
Ezkutuko ekonomia gobernuaren ezkutuan egiten diren eta zergarik ordaintzen ez dituzten jarduera ekonomikoak dira.

Zein proposamen ditugu **politika sozialen gaian**?

- Gizarteratzeko Plan Estrategiko berri bat egitea.
- Gizarteratzeko eta Errenta Bermatua jasotzeko eskubideei buruzko legea garatzea.
Gogoratu **Errenta Bermatua** baliabide ekonomiko gutxien dituztenentzat laguntza ekonomikoak direla.
- Txostenak egitea planek, legeek eta bestelako politikek hurrei eta nerabeei nola lagundu dieten azaltzeko.
- Haurren eta nerabeen osasun mentalaren gaian ekintza-plan bat egitea.
Plan horretan beste gauza batzuen artean prebentzioa, detekzio goiztiarra eta arreta kontuan hartuko dira.
- 31/2022 Foru Legea, azaroaren 28koa, Nafarroan desgaitasuna duten pertsonen arreta emateari eta haien eskubideak bermatzeari buruzkoa, garatzea eta betearaztea.
- Buru-nahasmenduak dituzten pertsonentzako egoitza-zerbitzuak, enplegu-zerbitzuak eta errehabilitazio psikologiko eta sozialekoak sortzea.
Helburua haien autonomia, bizimodu independentea eta komunitatean inklusioa sustatzea izango da.

- 2024an egoitza-plazak ituntzeko Akordio Markoa hobetzea.
- Nafarroako zahartze aktibo eta osasungarrirako plan berri bat egitea.

Zein proposamen ditugu **Osasunaren gaian?**

- Osasunari buruzko Foru Lege bat egitea
Osasun Eremu Bakarrarekin.
Horrek esan nahi du eremu honek Nafarroako lurralde guztiak hartzen dituela.
Osasun gune guztiak eremu bakar batean bilduta egongo dira.
- Lehen hitzordu medikoen, diagnostikoak egiteko proben eta kirurgien itxaron-zerrendak murriztea.
- Lehen Mailako Arretaren funtzionamendua aldatzea, adibidez, profesionalek dituzten funtzioak eta zentroek ondo funtzionatzeko behar dituzten materialak izatea.
- **Arreta soziosanitarioa** sustatzea, hau da, mendekotasuna duten pertsonentzako gizarte, hezkuntza eta zaintza arreta sustatzea.
- **Esku-hartze komunitarioa** sustatzea, hau da, pertsonak gizartearen aldatzeko parte hartzea.

- Haurren eta gazteen osasun mentala hobetzea.
Oso garrantzitsuak dira
esku-hartze goiztiarreko
eta jokabide suizidak prebenitzeko programak.
- Lehen Mailako Arretako zentro guztietan
psikologoak egotea.
- Ingurumenaren kutsaduraren eta **kutsadura akustikoaren**,
hau da, zarataren ondorio negatiboak prebenitzeko
planak egitea.
- Zentro guztietan eta hezkuntza-maila guztietan
osasun-hezkuntzarako programak
egon daitezen proposatzea.

Zer proposamen ditugu **Hezkuntzaren gaian?**

- Ikasgela bakoitzean ikasle gutxiago egotea.
- Skolae berdintasunerako hezkuntza programa ikastetxe guztietan gauzatzea.
- Landa Eskolen funtzionamendurako arau bat egitea.
- Biztanle gutxiko eremuetako ikasleek jantokia ordaindu behar ez izatea.
- Laguntza izeneko bizikidetza-programa gehiago garatzea.
- IkasNova programa erabiltzen jarraitzea.
Hau hezkuntza-berrikuntzarako programa bat da.
- **PAI**-a, hau da, Ingelesez Ikasteko Programa kentzea, eta **eleaniztasuna** arautzeko arau bat egitea, hau da, hezkuntza-sisteman 2 hizkuntza edo gehiago egotea.
- A eta D ereduetan ikasle gehiago egotea.
A ereduan, irakasgai gehienak gaztelaniaz dira eta irakasgai batzuk euskaraz ematen dira.
D ereduan ikasgai gehienak euskaraz dira.
- Hizkuntza Eskola Ofizialei garrantzi handiagoa ematea.

- 0 eta 3 urte bitarteko hurren hezkuntza doakoa eta pertsona guztientzat izatea eta ikasgela bakoitzean ikasle gutxiago egotea.
- Euskarazko plaza gehiago egotea.
- Lan-eskaintza publiko gehiago egotea langileek denbora gehiagoz leku berean lan egin dezaten.
- Aniztasunari arreta emateko beste plan estrategiko bat egitea.
- Ikasle etorkinak hartzeko planak egitea.
- Irisgarritasun Plana betetzen dela ziurtatzea.

Zein proposamen ditugu **etxebizitza** eta **hirigintzaren gaietan**?

- Pertsona guztiek etxebizitza duina eta kalitatezkoa eskuratu ahal izateko aldaketa garrantzitsuak egitea.
- Geroa Bai-k babestu zuen Etxebizitzari buruzko Foru Legea garatzea.
- Alokairuko etxebizitzen sistema publikoa hobetzea.
- Obrak egiteko eta herriak eta hiriak hobetzeko planak sortzea.
- Herri eta hiriak iraugarriak izan daitezen planak egitea.
- Landa-eremuetan pertsona gehiago bizitzeko planak egitea.

Zein proposamen ditugu emakume eta gizonen arteko berdintasunaren gaiaren inguruan?

- Pertsonen bizi-kalitateak politika publikoetan landu beharreko alderdi oso garrantzitsua izan behar du.
- Pertsona guztiek behar dituzten zaintzak izatea eta zaintza horiek duinak, hau da, egokiak eta kalitatezkoak izatea.
- Sexu-indarkeriaren biktimentzako 24 orduko Arreta Integraleko Zentroak laguntza politikoa izatea eta beharrezkoa duen dirua izatea.
- Aisialdirako eta festarako guneetan sexu-erasoak prebenitzeko protokolo bat egitea.
- Lanean emakumeak ez diskriminatzeko eta lan-baldintza onak izateko neurriak hartzea.
- Enpresetan eta administrazio publikoetan berdintasun-planak sustatzea.
- Klase sozial edo ekonomikoagatik, arrazagatik, sexu-orientazioagatik, desgaitasunagatik edo landa-eremu batean bizitzeagatik diskriminaziorik ez jasatea.
Garrantzitsua da hau gerta ez dadin neurriak hartzea.

- **LGTBI+*** pertsonen berdintasun sozialerako Foru Legearen Ekintza Planeko neurriak abian jartzea.
- Lanean **berdintasunezko maskulinitateak** sustatzea, hau da, gizonek ere gizonen eta emakumeen arteko eskubide-berdintasuna defenda dezaten lan egitea.

LGTBI+:

Pertsona lesbianak, gayak, transexualak, bisexualak eta + zeinuan sartutako beste pertsona batzuk dira. + zeinua **plus** irakurtzen da.

Zer proposamen ditugu **hizkuntza-politikaren gaian?**

Hizkuntza-politika hizkuntzen gaia lantzen duen politikari dagokio.

- Herritar guztien hizkuntza eskubideak ziurtatzeko foru lege bat onartzea.
- Nafarroa osoan Nafarroako Administrazio Publikoetan lan egiteko euskarak meritu gisa puntu gehiago izan ditzan lege bat onartzea.
- Euskararen Bigarren Plan Estrategikoa onartzea.
- 2023 eta 2027 urteen artean saileko hizkuntza-planak abian jartzea.

Zer proposamen ditugun **bakea eta bizikidetzaren gaitan?**

- Marques de Rozalejo jauregia
Memoria, Bake eta Bizikidetzaren politiken
egoitza bihurtuko dugu.
- Ikur frankisten zerrenda berria onartzea.
Frankista Francotik dator.
Franco Espainiako **diktadore** bat izan zen,
hau da, gobernuan zegoen
eta erabakitzeke ahalmen osoa zuen.
- San Kristobal gotorlekuan
memoriaren proiektu bat egitea.
- Terrorismoaren Biktimei buruzko
Foru Lege berri bat egitea.
- Memoria duten eskolak programa
eta Eskutik programa
indarkeria politikoaren biktimei zabaltzea.
- **Torturen*** biktimeak aitortzea.

Tortura*:

Pertsona bati
beragandik zerbait lortzeko,
adibidez, informazio bat lortzeko
jipoitu edo min egitea.

Zer proposamen ditugu **gazteriaren gaian**?

- Alokairurako Emanzipa laguntza
35 urtera artekoa izatea
eta laguntza hori 21 urtetik aurrera eskatu ahal izatea.
- Gazteek kalitatezko enplegu gehiago izatea
eta enpresek gazte gehiago kontrata ditzaten laguntzea.
- Hurren eta gazteen osasun mentala hobetzea
eta Nafarroako adikzio, esku-hartze goiztiar
eta jokabide suizidak prebenitzeko programei
garrantzi handiagoa ematea.
- Gazteen artean kultura sustatzeko
Gazte Artearen Lantegiak sortzea.
- Gazteentzako interesgarriagoak diren
kultura-bonuak sortzea.

Zein proposamen ditugu **kulturaren gaian**?

- Kulturaren Lanbideei buruzko Foru Legea sortzea.
- Kultur Eskubideen Legea abian jartzeko plan bat egitea.
- Kulturaren Bigarren Plan Estrategikoa garatzea.
- Publiko berriak sustatzeko plana garatzea.
- Irakurzaletasuna sustatzeko plana garatzea.
- 2030. urtean Gobernuak kulturaren % 2 ordaintzea.
Hau da, kulturak 100 euro balio badu, Gobernuak 2 euro ordainduko ditu.
- Instituzioetatik gobernu on bat egitea.
- Herritarren sormena garatzea.
- Generoaren gaian adibide eta praktika onak izatea.
- Kultura-inklusiorako laguntzak ematea.
- Ondare historikoari eta dokumentu-ondareari balio handiagoa ematea.
- Museoetara bisitak sustatzea.

- Herritarrek kultura euskaraz bizitzea.
Adibidez, eduki kulturala euskaraz sortu eta garatzea.
- Kulturaren Nafarroako Behatokiak
kultur politiken azterketak eta ebaluazioa egitea.
- Kultura digitalizatzea
eta teknologia berriak erabiltzea.

Zer proposamen ditugu **kirolaren gaian**?

- Kirol-instalazioak,
adibidez, kiroldegi bat kudeatzeko plan bat egitea,
eta toki-erakundeei laguntzak ematea.
- Instalazio berezi berriak eraikitzea,
adibidez, Iruñerrian atletismoko pista estali bat
edo Nafarroako Unibertsitate Publikoan
beisbol eta errugbi zelaiak dituen
kirol zentro berezi bat.
- Nafarroako Kirolaren Institutuak
ez du apustu-enpresek ordaintzen dituzten
edo haien publizitatea duten
kirol-ekitaldietan lagunduko.
- Kirol-kudeaketako enpresetan lan egiten duten pertsonen
lan-baldintza duinak izatea.

- Herritarrek kirol gehiago egin dezaten programak egitea.
Programa hauek batez ere landa-eremuetan bizi direnei, haurrei, hirugarren adinekoei eta askotariko gaitasunak dituztenei zuzenduta egongo dira.
- Emakumeen kirola babestea.

Zer proposamen ditugu Funtzio Publikoaren gaian?

Funtzio Publikoa

Gobernuarentzat lan egiten duten pertsonak dira.

Pertsona funtzionarioak dira.

- 12/2019 Foru Legea, martxoaren 22koa, Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzkoa garatzea.
- Nafarroako Gardentasun Kontseilua eguneratzea.
- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua erreformatzea.
- Lan Eskaintza Publikoak egitea enplegu publiko gehiago egon dadin.

Zer proposamen ditugu **herrizaingo sailaren gaian?**

Herrizaingo Saila

herritarren segurtasunaz arduratzen da.

- 2024 eta 2027 urteen arteko Foruzaingoaren Plan Zuzentzailea egitea.
- Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legea garatzea.
- Nafarroako Segurtasuna eta Larrialdiak Koordinatzeko Zentroa sortzea.
- 2024 eta 2027 urteen arteko Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko Plan Zuzentzaile berria onartu eta garatzea.

Zer proposamen dugu **Justiziaren gaian?**

- Justizia Errestauratiboaren, Bitartekaritzaren eta Praktika Errestauratiboen Legea garatzea.

Zer proposamen ditugu **Europako** eta **munduari buruzko gaietan?**

- Nafarroak Euroeskualdean,
Pirinioetako Lan Elkartean
edo Arku Atlantikoko Makroeskualdean parte hartzea.
- Europako Proiektuen Bulegoa babestea.
- Kanpoko Nafarroako Komunitateen Kontseilua sortzea.
- Nafarroara itzuli nahi duten nafarrei laguntzea.



Texto adaptado y validado
por la Oficina de Accesibilidad Cognitiva de Navarra (OACNA)
ANFAS



Logo europeo de lectura fácil:
©European Easy-to-Read Logo: Inclusión Europe.
Más información en: <http://www.inclusion-europe.eu/easy-to-read/>